AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3901

615/2013 EBAZPENA, ekainaren 24koa, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Gemma Fernandez Peñalba andrea Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko izendatzeko dena.

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen otsailaren 25eko 217/2013 Ebazpenaren bitartez, Basurtuko Unibertsitate Ospitalean zuzendariorde mediko lanpostu bat betetzeko deialdia egin zen. Ebazpen hori, hain zuzen, 2013ko maiatzaren 16ko EHAAn argitaratu zen (93. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, lanpostu horretan jarduteko aurkeztu diren eskabideak eta agiriak aztertu dira, eta hautagaien baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Gemma Fernandez Peñalba andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko gaitasun egokiak dituela ikusi da.

Horiek guztiak horrela, Kudeaketa Zuzendaritza honek hau

EBATZTEN DU:

Lehena.– Gemma Fernandez Peñalba andrea izendatzea Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendariorde mediko.

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Bilbo, 2013ko ekainaren 24a.

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
MICHOL GONZÁLEZ TORRES.